



Gure ustez, gure diskotekaren funtzionamentu ezinhobearentzat baliabide garrantzitsu batzuk identifikatu , eta horiek kontuan hartu behar ditugu gure helburuak betetzeko:

Gure zerbitzariak bezeroekin duten jarrera, gure bezeroek gure langileekin harreman ona izatea nahi baitugu. Giroa oso atsegina izango litzateke. Era berean, azpimarratu nahi dugu funtsezkoa ikusten dugula gure langileen motibazioa. Horretarako beraien beharrak entzuteko prest agertuko gara, beharrezko formazioa eta talde giroa sustatzeari garrantzia emango zaio.



Baliabide fisikoei dagokionez, bi dira gure diskotekak dituen bereizgarritasunak.

Alde batetik, azpimarratu nahi dugu gure establezimenduak zapore guztietako katximbak dituela: marrubia, menda, limoia, kanela, etab. Katximba bakoitzaren prezioa 15 €-koa da eta ordubete inguru irauten dute.

Bestetik, igerilekua da besteengatik desberdintzen gaituena, beraz funtsezkoa da gure negozioaren arrakastarako.



Azkenik, gure kokapena azpimarratu nahi dugu, Leioako metroaren irteeraren ondoan gaude, Felipe del Rio kalean, eta diskoteka askok ez



dute gurea bezain kokapen ona bertara iristeko.